

Getxoko Mugikortasun Iraunkorreko Plana

egiteko parte-hartze prozesua

*Herritarrekin eta interes-taldeekin egindako jardunaldia
(2017/06/07)*



Dokumentuaren egilea:



ONDORIOAK DENEN AURREAN AURKEZTEA

Lan-mahai bakoitzean ateratako ondorioak aurkezten dira jarraian:

BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA

Bizikleta bidezko mugikortasunaren diagnostikoari dagokionez, **bidegorri-sarearen konexiorik eza** eta **bide horiek jende askoko gunetara** (eskolak, besteak beste) **iristeko beharra** adierazi dituzte parte-hartzaileek. Horrekin batera, bizikletak alokatzeko sistema publikoan egin beharreko hobekuntza batzuk ere aipatu dituzte: esaterako, **aparkalekuetako segurtasuna** eta Getxoko **alokairu-sistemaren eta ondoko herrietan ezarritako sistemen arteko konexioa**.

Halaber, beharrezkotzat jo dute oinezkoen, korrikalarien, bizikleta- eta patineterabiltzaileen eta gidarien artean **elkarbizitza sustatzea**.

Diagnostikoan **alde onak** ere nabarmendu dituzte: adibidez, **bizikleta darabilten herritarren kopuru handia** antzeko beste udalerrri batzuekin alderatuta.

Bizikleta bidezko mugikortasunari lotuta 2030erako zer nahiko luketen galdetuta, beharrian hauek adierazi dituzte:

- o Bizikletentzako aparkaleku seguru eta estaliak lortzea.
- o Bizikletak alokatzeko sistema publikoari buruzko informazioa herritarren artean zabaltzea eta zerbitzu hori erabiltzeko erraztasun handiagoak ematea.
- o Bidegorri-sareak auzoen artean eta beste udalerriekin lotura izatea lortzea.
- o Mugikortasun-espazio bakoitzean egin daitezkeen erabilpenei buruzko araudi argiagoa lortzeko bidean aurrera egitea.

OINEZKOEN MUGIKORTASUNA

Mahaian egindako lanaren zati nagusia **bizikleta bidezko mugikortasunera** bideratuta egon da, eta, beraz, oinezkoen mugikortasunaren diagnostikoa eta etorkizunera begirako hausnarketa zehaztasun gutxiagorekin jorratu dira.

Arlo honetan, parte-hartzaileek **espaloizabalagoak eta Getxoko zenbait gune oinezkoentzat jartzea** eskatu dute. Horrez gain, **semaforoen zikloak oinezkoentzat erosoagoak izatea eta mugikortasuna errazteko hiri-bide sare bat sortzea** ere eskatu dute. Azkenik, **hiriko leku guztietara heltzeko traba diren mugak kentzeko** beharra azpimarratu dute.

IBILGAILU PRIBATUA

Herritarrek uste dute zaila dela Getxon autoa uztea, gunearen, egunaren eta orduaren arabera ezberdintasunekin. Herritarren pertzepzioa da, eta **askotan ez dator bat errealitate objektiboarekin.**

Halaber, uste dute **garestia dela Getxon ordaintzeko lekuetan edota aparkalekuetan autoa uztea**, eta, horregatik, doako gune bat bilatzen dute beti. Horrez gain, **"dendaren ondoan aparkatzeko" kultura** dagoela eta horrek **gune komertzialetako aparkalekuak gainezka** egotea dakarrela ere adierazi dute.

Bertakoentzako garajeen kasuan ere gabeziak daudela esan dute: gune batzuetan ez dago garajerik; beste batzuetan, egon badaude, baina ez dira erabiltzen.

Zamalanegi dagokienez, **guneen banaketan eta ordutegietan hobekuntzak egiten jarraitzeko** aukera dagoela nabarmendu dute, jendeak bigarren ilaran aparka ez dezan.

Azkenik, **hondartzak** aipatu dituzte **ibilgailuz beteta** dauden eta aparkatzeko arazoak dituzten leku gisa, eta HMIPan landu beharreko alorretako bat izan beharko litzatekeela uste dute.

Auto bidezko mugikortasunari lotuta 2030erako zer nahiko luketen galdetuta, lau ildo nagusi azpimarratu dituzte:

- **Ibilgailu partekatuak, elektrikoak eta kutsadurarik eragiten ez dutenak** sustatzea.
- **Disuasio-aparkalekuak** lantzea.
- Zamalanegi dagokienez, gune komertzialak ibilgailuz hainbeste beteko ez dituen **mikrobanaketa-punturen** bat ezartzea. Horrekin batera, banaketarako ibilgailu garbiak erabiltzea.
- Azpiegiturei dagokienez, **semafororik gabeko** udalerririk bat lortzeko bidean aurrera egitea proposatu dute.

GARRAIO PUBLIKOA

Getxon garraio publikoari buruz egindako diagnostikoa positiboa da: **Metro eta Bizkaibus** zerbitzuak aski dira udalerriko auzorik gehienetan, geltoki ugariarekin eta maiztasun onarekin. **Bizkaia Zubia** ere oso garraiobide erabilia dela adierazi dute.

Irisgarritasuneko eta mugikortasun bertikaleko mekanismoak ere egokitzen dituzte (arrapalak, eskailerak, igogailuak...).

Diagnostikoa positiboa den arren, **2030era begira hobetu beharreko zenbait alderdi** aipatu dituzte: **autobusen tamaina** txikitzea kale estuetatik errazago igaro daitezen, berinapeak jartzea falta diren geralekuetan, **pertsona guztiek lortu eta ulertu ahal izateko moduko informazioa** eskaintzea geralekuetan eta Getxoko **garraiobide guztien informazioa** bateratzen saiatzea.

Idea deigarriagoak ere agertu dira; esaterako, **gidaririk gabeko taxia, bizikleta elektrikoaren** sustapena eta **udalerrri ezberdinetan bizikletak alokatzeko dauden sistemen bateragarritasuna**. **Ibaiaren bidez Bilborekin lotura** izatea eta **Getxoko kostaldean zehar garraio publikoa** jartzea (ez turismora bideratuta soilik) dira mahaian proposatutako beste neurri batzuk.

ADITUEN MAHAIA

Mahai honetan HMIPa diseinatzerakoan garrantzitsuak izan beharko liratekeen hainbat gai jorratu dituzte.

Hasteko, HMIParen helburuak ondo zehaztu ahal izateko, **egungo mugikortasunaren diagnostiko eraginkorra** egitearen beharraz hitz egin dute.

Hirigintzaren garrantzia eta horrek mugikortasun-planekin duen harreman estua ere hizpide izan dituzte. Bi planek batera joan behar dute, elkarrekin koordinatuta.

Adituen arabera, **aparkamendua** da funtsezko beste elementu bat; izan ere, **aparkatzearen kostua ezinbestekoa da herritarren mugikortasun-ohiturak aldatzeko**.

Garraio publikoari dagokionez, **Metroak udalerrian dituen geralekuen garrantzia** azpimarratu dute, pribilegioa baita Bilborekin konektatuta egoteko. Halere, garraio-eskaintza ona bada ere, **ez du jende askok erabiltzen**, Bilbon lan egiten duten pertsona ugari beren ibilgailua hartzen baitute.

Bizkaibusen kasuan, zehazki, **geralekuetan informazio gehiago jartzea** eskatu dute.

Bizikleta elektrikoari dagokionez, **joan-etorriak egiteko beste aukera batzuekin partekatutako guneak ondo kudeatzearen garrantzia** aipatu dute, egoera arriskutsuak ekiditeko. **Bizikletak alokatzeko sistemak** ondoko udalerriekin **koordinatzeko** premia ere adierazi dute. Adituen aburuz, **bizikleta elektrikoa** tresna interesgarria da orografia txarragoa duten guneetan mugikortasun iraunkorra bultzatzeko.

Bizikletei dagokienez, **uste dute edozein kaletatik zirkulatzeko aukera izan beharko luketela**, autoen ibilbidea eta noranzkoa muga izan gabe. Izatez, **kaleak kontrako noranzkoan erabiltzeko aukera** izan beharko lukete. Irudikatzeko zaila den neurria da, baina Europako hainbat lekutan martxan dago.

Eskola-garraioaren alorrean, puntako orduetan auto gehiegi egoten dela deritzote, eta hori guraso-elkarteekin eta ikastetxeekin jorratu behar da. Halaber, mugikortasun iraunkorra **enprekin lantzeko** beharra ere aipatu dute.

Errepideei dagokienez, **mantentze-lanen kostu altua** izan dute hizpide.

Bukatzeko, **HMIPa egiteko eta ezartzeko**, merkatarien, bizikleta-erabiltzaileen eta beste elkarte eta talde batzuen artean **eragile aliatuak bilatzearen** premia hausnartu dute.

